

Euskaltzale gazteek artutako joera ez zan egokiena euskal kulturarentzat. Beste ekintza bideak, bortxa, indarkeria ta iraultza bere gogokoago zituzten eta atzera arazi dute euskal teatroaren aurrerapena. Azpi-jan eta bekaizkeria ere ez dabilta aien alegiñetatik urruti. Au guztia dala-ta, beste kultura zeregiñetan leia-tzea atsegiñago zait, eta bide ontatik jarraitzen dut".

Gerraondoan ere "bere lana estimatzekoa da itzultzaile bezala" Patrik Urkizuren hitzetan. Baina ez horretan bakarrik, zeren "50eko hamarkadan lehenbizikoa izan zen euskal antzezlanei buruz informazioa emateko orduan".

Baina Labaien ez zen gazteek hartutako bidearen oso aldekoa atera. 60ko hamarkadan, *Jarrai* antzeztaldea sortu zen ga-

raian, Arestiren eta beste zenbaiten eraginez antzerkiari beste ta-jukera bat eman zitzaion "eta momentu hartatik atzera samar geratzen hasi zen. Hala ere, beti egon zen puntaren puntan", Xabier Mendigurenen hitzetan. Patrik Urkizuk esango digu: "Egia ez zela gazteek egiten zutenaren oso aldekoa". Ondoren Labaien beraren hitzok aipatzen dizkigu: "Teatroa berri behar omen, ondo dago asmoa. Baina "Katua zinkezko teilatuaren gainean" eta antzeko berrikeri ezerezak egitekotan hobe da klasikoan gelditu".

Amaitzeko, esan dezagun zenbait antzerkilariren hitzak honeratuz, A.M. Labaien jaunak, alde edo moldez, euskal antzerkilarianari buruz egindako lan erraldoiak merezi duela bere bizitzan egin ez zaion moduko omenaldi berezi bat.

G.E.

## **EGAN-en kondairarako apunteak (I)**

### **1. Historia-izpiak**

1948. urtean, "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País" Boletinaren eranskin moduan sortu zen *EGAN* aldizkaria. Lehen aleak 32 orri besterik ez zituen, haietako 12 euskaraz. Garai haietarako izugarriko aurrera-

kuntza zen eranskina, oso zaila baitzen euskaraz argitaratutako zerbait topatzea. Beraz hasiera batean elebiduna izan zen. 1954. urtean euskara hutsean idatzirik aldizkari literario bihurtu zen. Urte horretan "Julio Urkixo Euskal Filologji Mintegia" sortu zen, honek

bere gain hartuz *EGAN*-en ondarea.

Ekonomi aldetik murriztasun larriak jasan zituen eta bere burua finantziatu ezinean aurkitu zen. 1954 ezkeroztik *EGAN* birmoldatu, eta itxura berria hartuta, aldizkariaren orriak euskal kulturari ireki zitzaizkion.

Aurten, bere sorreraren 46. urtea betetzen dela, esan dezakegu literatur gaietara loturik, eta euskara hutsean, idatzitako aldizkari zaharrena *EGAN* dugula.

1954. urtean 3 pertsonen esku utzi zen zuzendaritza: A. Arrue, A. Irigarai eta L. Mitxelenarenean alegia. Mitxelena zinema kritika egiten hasi zen, Arruek, berriz, gastronomiari heldu zion.

Aldizkariaren asmoa, sorreratik, urtean sei ale ateratzea izan zen. Baina ale bakarra argitaratu ziren urteak ere egon ziren (1984 adibidez). Aldizkari batek maiztasun bat beharrezkoa dauka, horregatik urtean gutxienez hiru ale ateratzea erabaki zen, Diputazioaren dirulaguntzaz.

*EGAN*-ek urte guzti hauetan literatur gaiak tratatu ditu, gehienbat. Literatura pluralista bat agertzen zaigu *EGAN*-en orrietan, klasikoetatik abanguardistearaino. Juan San Martinek behin esan zuenez, politikak ez du bertan sarrerarik izan, euskara herri guztiarena baita.

*EGAN*-en historian Euskal geo-

grafia osoko idazle gehienak parte hartu dute Euskal Herri bateratu baten itxura emanez, honela: poliki-poliki aldizkaria, bai neurritz eta bai edukinez, hazten joan dela.

*EGAN* sortu zen garaian, euskara hiltzorian zegoen; honen sorreraren ondoren euskal idazleei bere hizkuntzan idazteko aukera bat zabaldu zitzaion.

*EGAN*-en etapa desberdinak bizi izan dira. Lehena Mitxelena, Arrue eta Irigarai zuzendariena. Azken biak hiltzean, Mitxelenak J. San Martinen laguntza izan zuen. San Martinen garai honetan *EGAN*-ek ibilbide berri bat hartu zuen narratiban, eta euskal idazle berriei bere lekutxoia egiten utzi zitzaion. L. Mitxelena desagertzean, eta San Martin ararteko izendatu ondoren, 3. epeari eman zitzaion hasiera. Epe honetan Iñaki Zumalde zen zuzendari (1990-ean), baina handik oso gutxira amaitutzat eman behar izan zuten. 1992an laugarren epeari hasiera eman zitzaion, oraingoan Luis Mari Mujika zuzendari lanetan eta Gillermo Etxeberria idazkari egonik. 4. gn. epe honetan berrikuntza nabariak egin dira, batez ere, itxurari dagokionez, eta azterketa literarioa eta kritika sailak indartu dira.

Ongi bereiztekotan, hiru epe garrantzitsu daude, Jean Haritschelhar Euskaltzainburuak *EGAN*-en azken etaparen aurkezpe-

nean argitu zuen moduan. 1948tik 1954ra lehen, garai honetan ia dena gaztelaniaz zen, non Gabriel Celaya eta de la Cuadra Salcedo gisako autoreek parte hartu zuten. Bestea 1954tik aurrera, honezkeroztik dena euskara hutsean. Eta hirugarrena 1992an hasitakoa.

EGAN-i esker atzerriko hainbat lan euskaraz irakurtzeko aukera izan dugu, askotan gazteleraz baino lehenago. Bere helburua kultur hedapena eta euskararen zabaltzea eta indartzea (hiltzorian zegoen garai haietan, batipat) izan zen.

Euskara poliki-poliki indartzen ari den garai honetan, dena euskaraz idazten den aldizkari zaharrenaren historia eta edukiaren errepaso bat egin nahi izan dugu.

## 2. Egitura

EGAN-ek egitura jakin bat izan du urte askotan, eta honoko atal-letan banatua izan da:

a) Lehen orrietan pertsonen oroitzapenak eta horien agurrak, saiakerak eta zenbait estudio-mota literaturarekin zerikusia dutenak.

b) Bigarren saila: Olerkiak. Sail honetan euskal poetarik ospetsuenen lanak argitaratu dira, baita beste hizkuntzetatik itzuliak ere.

c) Hirugarrena: *Kontu-kontari* deiturikoa. Sail honetan ipuin,

kondaira edo narrazio laburrak argitaratzen dira. Honetaz gain, itzulpen ugari ere lekua utzi zaio.

d) Laugarrena: *Adabakiak*. Ohar, zuzenketa, azalpen edo kritika laburrak egiteko txokoa. Hasieran sail honi *Nahas-Mahas* zeritzon, eta bertan zinema gaiak ere lantzen ziren (batez ere Mitxelenak).

e) Bosgarrena: *Liburuak*. Berreziki euskaraz, eta noiz-noiz erdaraz, argitaratzen ziren liburuen edukina, eta haiei buruzko eritziak. Honetaz gain, sortu eta laster desagerturiko beste aldizkarien berri.

f) Seigarrena: *Antzerkia*. Zerbaki bakoitzean antzerki obra bat argitaratzen zen. Euskarara itzuli diren munduko antzerkigilerik onenen lanak argitaratu dira. Gabriel Arestiren obra guztiak, eta Pierres Lartzabalen lan ugari sail honetan. Besteen artean:

GABRIEL ARESTIREN: Mugalde herrian eginiko tobera (4-6, 1961, 262-289), Etxe aberatseko etxe galdua (4-5, 1962, 324-348), ...Eta gure heriotzako orduan (1-6, 1964, 267-285), Justizia txistulari (1-6, 1967, 177-189).

P. LARTZABALEN: Okillomendi alkate (3-4, 1952, 25-35), Sarako lorea (3-4, 1984, 167-195), Mugari tiro (5-6, 1984, 167-221), Berrettertx (1-2, 1985, 145-205), Suedako neskatxa (5-6, 1985, 179-225), lhauteriak (1-2, 1987, 129-170).

Baita galtzear zegoen zenbait obra, XIX. mendekoak zein XX. ekoak, berreskuratu du EGAN-ek; hala nola, Xabier Lizardik idatzi zuen antzerki bakar hura: Ezkondu ezin zitekeen mutila (1-4, 1953, 29-55).

Honetaz gain, ahazturik zeuden eskuizkribuetatik zenbait antzerki eta pastoral berreskuratu da. Nahiz eta eskuizkribuetatik transkribatzea eta inprimategi frogak zuzentzea izugarritzko lana izan, EGAN-en arduradunak urte askotan horrekin aritu dira.

### 3. Edukiak

Urte guzti hauetan EGAN-ek era guztietako arloak landu ditu, hauek aldizkariaren mamia eta muina izanik.

#### a) Edukien sailak:

##### 1. LITERATUR AZTERKETA:

Ahozko literatura, lirika zaharra, pastoralak, antzerkia, bertolaritza, lirika modernoa, kritiken azterketak, autoreak, kanpoko lirika eta kanpoko narratiba eta antzerkia.

##### 2. SORKUNTZA:

Testu zaharrak, garaiko testuak, poesia, ipuin eta kontakizunak, narratiba, antzerkia (historikoa eta modernoa) eta bertolaritza.

##### 3. SORKUNTZA GAZTELANIAZ:

Poesia, narratiba eta antzerkia.

#### 4. ITZULPENAK:

Poesia (gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemaniera, italiara, galiziera, katalaneratik...).

Narratiba, biografiak eta abar (gaztelania, frantsesa, ingelesa, italiara, alemanieratik...).

Antzerkia (gaztelania, frantsesa, alemanieratik...).

#### 5. HIZKUNTZA:

Historikoa eta azterketak (dialektologia, euskara batua, fonetika, lexikoa, morfologia, onomastika, ortografia, sintaxia, soziologia eta toponimia).

#### 6. ADABAKIAK:

*Berriketan, Emakumeak, Galderantzunak, Gastronomía, Munduz- mundukoa, Nahas-mahas.* Baita orotarikoak, nekrologiak, pintura, musika, artea eta sariketak.

#### 7. BIBLIOGRAFIAK:

Liburu-sailak, kritika eta erreseinak, eta zinema.

#### b) Arlo nagusienak:

##### 1. LITERATUR AZTERKETA:

Sail honen barnean gehien landutako arloa *Autoreak* deiturikoa litzateke, zeinean Juan San Martin izaki ugarien idatzi duena. Gelditzen diren beste arlo guztietan lana ez da oso oparoa izan; esate baterako, lirika zaharrean 1948tik 1992ra 6 artikulua idatzi ziren, soilik.

##### 2. SORKUNTZA:

Gehien jorratutako arloa *Poe-*

sia, *Ipuin* eta *Kontakizunak* ditugu. Poesia arloa gehien landu duen autorea Aresti dugu. Ipuin eta *Kontakizunak*, aldiz, Alzola Garediagak "Bitaño" izenordea erabiliz. Autore honek 14 zenbaitan utzi zuen bere obren testigutza.

*Antzerki historikoari* dagokionez, urte guzti hauetan obra bakarra agertzen da, Jean Etxeberriren "Arroltze Ghoina" (1, 1952, 17-23).

### 3. ITZULPENAK:

Sail honetan *Poesia*, *Narrati-ba*, *Biografia* eta *Antzerkia* itzuli da. Bai gazteleraz, frantsesez, ingelesez, alemanieraz, italieraz, galizieraz, katalaneraz eta abarrez eginiko obrak itzuliak izan dira. Gehienak gaztelaniatik. Gutxien landutako arloa antzerkia dugu, batez ere alemanieratik, zeinetik obra bakarra itzuli baita. D. Landart eta Lafittek "Amaren amak" (1-2, 1984, 143-173).

### 5. HIZKUNTZA:

Gutxien landu den arloa dugu hau. Honen barnean *Historiaren* arloa da oparoena; aipatzekoak Irigarai eta Krutwigen lanak. Arlo honetan, Euskaltzaindiaren eta Mitxelenaren obreren historia aipa dezakegu. Mota guztietako azterketak egin dira: fonetika, soziologia, sintaxia, ortografia eta abar. Arlo hauek, aldiz, ez dira oso oparoak izan.

### 6. ADABAKIAK:

*Nahas-mahas* gehien landu den arloa da, eta hemen ugarieridatzi dutenak Irigarai eta San Martin. *Emakumeak* deiturikoa gutxien landu zen, bakarrik 1959 urterarte.

Gastronomia arloan aipatzekoa, *Jan-edanei* buruz, Arruek egin zuen lan oparoa. San Martinek *pintura*, *musika* eta *arte*a saila ere landu zuen.

### 7. BIBLIOGRAFIA:

Sail honetan gutxien landu dena *Liburu sailak* izenekoa. *Kritika* eta *Erreseinetan*, aldiz, lan ugari aurki dezakegu. San Martin da sail honetan gehien idatzi duena. Aresti, Irigarai, Axular, "Txillardegia", Camilo Jose Cela moduko autoreen lanen kritikak ere egin dira sail honetan.

*Zinema* sailean Mitxelena da gehien idatzi duena, baina aipatzekoa da Ansolaren lana.

### c) Autoreen ikuspegia:

Ondoren, ugarieridatzi duten eta aipagarrien diren autoreen ibilbidea EGAN-en, eta haien bizitza eta obrei buruzko zenbait xehetasun.

Badaiteke, artikulua edo adabakiren bat falta izatea, batzutan izenpetu gabe idazten zutelako; zalantzaren aurrean nahiago izan dugu ez sartzea. Zenbait obretan ez da lokalizaziorik agertzen; horrek esan nahi du

lokalizaturikoa hurrengoek berdin dutela. Agerturiko autoreen ordena kronologikoa da.

1) MANUEL LEKUONA ETXAGUREN:

1894. urtean Oiartzunen jaioa. Gasteizen eliz ikasketak egin zituen.

1951. urtetik euskaltzain oso dugu, eta zenbait urtetan bertako lehendakari.

Bere kolaborazioak, bai euskaraz eta bai gazteleraz, *Anuario de Eusko Folklore*, *RIEV*, *Euskeria*, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, *Zeruko Argia*, *Euzko Gogoia*, *Jaunaren Deya*, *EGAN* eta abarretan agertu dira.

M. Lekuona liturgia euskarara itzuli zuen komisioreen partaide izan zen. Bere obren artean lan historiko eta artistiko ugari dugu. Gaztelerako obren artean: *Métrica Vasca* (1918), *Poesía Popular Vasca* (1918), *Literatura oral euskérica* (1935), *Del Oyarzun Antiguo* (1959).

Euskarazkoen artean berriz: *Gasteizko elizbarrutiko Kristauikasbidea* (1918), *Jesus aurraren bizitza* (1948), *Gerozikatik Gurutziagara* (1952), *Zigor* (1963), *Bi antzerki eta bi hitzaldi* (1965), *Gerrateko nere hamabi kantak*.

I - LITERATUR AZTERKETA:

*Ahozko literatura*: Gai honi buruz dagoen guztia 1954. urtean egindako hiru artikuluetan

eta 1956ean argitaraturiko baka-rean.

"Belenen", "Bizia maite-irria", "Tanz- lied" (2-4, 1954, 5-10), "Gabon kantak" (5-6, 1956, 9-44).

*Lirika zaharra*: Arlo honetan Manuel Lekuonaren lana oso urria da, 1970. urtean idatzirik artikulua bakarra baitago. "Mon-dragoe sutan" (1-3, 1970, 27-48).

*Autoreak*: Orixe, Ayalde eta Basarriri buruzko hainbat aipamen artikulua hauetan:

"Orixen Euskaltzaindian sar-tzea Leitzañ" (1-2, 1958, 3-10), "Antonio Valverde Ayalderi buruz bi hitzaldi: Ayalde euskaltzale" (1-6, 1973, 12-23), "Basarriren figura euskal kulturari" (1-2, 1985, 7-16).

*Bertsolaritza*: *EGAN*-en bertso-laritzaren gaiari tratamendu urria eman zaio. Lekuonak Xenpelar, Basarri eta Uztapideri buruzko lanak egin zituen 1969-1986 urte tartean. "Xenpelarren urtea" (4-6, 1969, 25-32).

II - ITZULPENAK:

*Narratiba, biografia eta abar*:

a) Ingelesetik: Mark Twain eta Bruce Marshallen obra batzuen itzulpena.

"Bizirik dago ala hil zen? Mark Twain" (1-2, 1957, 23-31), "Aita Smith eta andereño komunista. Bruce Marshall" (1-2, 1958, 35-40).

b) Frantsesetik: Daniel Rop-

sen testu bat idatzi zuen. "Franziako idazle katoliku batek galde bat egin du: Al zan egiazki asto ta idirik Belengo estalpean? Daniel Rops" (5-6, 1956, 66-70).

### III - SORKUNTZA:

*Poesia*: 1948-1956 tartean sei bat poesia inguru. "Jesus haurren bizitza" (1, 1948, 11-19), "Jesus haurren bizitza" (2, 1948, 11-17), "Gabon kantak" (5-6, 1956, 9-44), "Itun, Aurraitz, Aurtxoa txoratzen" (5-6, 1956, 71-72).

### IV - ADABAKIAK:

*Nahas-mahas. Orotarikoak*: Sail honetan gai ugari jorratu zuen; haien artean galeserari buruzko artikulu bat. Printze Luis Lucian Bonaparteren omenez Euskaltzaindiak eginiko Batzarren xehetasunak ere ematen ditu. "Urkijo jaunaren liburutegia" (1, 1956, 4-11), "Katolikoen krisis osasungarri bat. Bruce Marshall" (3-4, 1957, 134-137), "Hizkuntzak Galesen" (5-6, 1957, 267-271), "Baionako Batzarra. Printze Luis L. Bonaparteri zorrak ordaintzen" (5-6, 1957, 333-335), "Bergara, herri bildu (1268-1968)" (4-6/1-6, 1970/71, 19-31), "Usurbil 'Herri-bilduaren' sei-reungarren urtea" (1-6, 1972, 15-31), "Aita Plazido Mujikaren omenez" (1-6, 1974, 12-26).

*Pintura, musika eta artea*: Gehien landu duen gaia erromanikoa Gipuzkoan, horri buruzko hi-

ru lan idatziz 1957, 1958 eta 1960 urteetan.

"Jesusen jaiotza edertian" (5-6, 1956, 56-59), "Edertiak Gipuzkoan", "Greko bi eta Divino Morales bat" (3-4, 1956, 6-10), "Romanikoa Gipuzkoan" (3-4, 1957, 156-161), "Romanikoa Gipuzkoan" (3-6, 1958, 142-144), "Romanikoa Gipuzkoan" (3-6, 1960, 177-181), "Beobide" (1-3, 1969, 14-19).

*Nekrologiak*: Aita Jose Antonio Donostia eta Eduardo Moko-roa jaunak hil zirenean, haien oroimenez eginiko artikuluak topa ditzakegu sail honetan. "Aita Jose Antonio Donostia" (5-6, 1956, 119-122).

### V - BIBLIOGRAFIA:

*Kritika eta erreseinak*: Gehien landu zuen saila dugu hau. 1956-63 tartean 53 erreseina eta kritika idatzi zituen, haien artean autore ugariaren obrak: P. Arradoi, A. Sorrain, Aita Olabide, Xabier Lizardi, E. Bustintza, Orixe, Domingo Agirre, Villasante, Arrese Beitia, Lardizabal, Txillar-degi, Etxaide, Irigarai...

"P. Arradoi: Kattalinen gogoe-tak", "KIA: Saileko Juan Bautista Deunaren bizitza laburra", "Nora?", "El Bidasoa", "A. Sorrain: Lili txuria odoletan" (1, 1956, 57-60), "Aita Olabideren Itun zaharra" (2, 1956, 5-9), "E. Bustintza: Kirikiño", "Abarrak" (2, 1956, 86-87), "I. M. Manzidor: Gure pa-

troi haundia", "A. Eugenio Agirretxe: Arantzazuko erromes", "P.P.C.: Irea al dek diru hori", "Anaitasuna: supl. de Anaitasuna de Guipúzcoa nº 32" (3-4, 1956, 107-110), "Anaitasuna: supl. de Anaitasuna de Guipúzcoa nº 34", "Zeruko Argia 33zn.", "Kristiñau katezismoa" (5-6, 1956, 147-154), "M.B. Aldapeta: Kristoren Antz-Bidea", "Villasanteren: Euskal gramatika labur eta idazleen pusketa autatuak", "Bondalaitz-Etxanizen: Itun zaharreko kondaira", "Beloc'eko Editions Ezkila 1950-1957", "Karmel: Euskal egutegia", "Garmendiaren: Euskeraren iraupena eta euskal literaturaren aurrerapena", "P.P.C.-ren: Mutil bat gutxiago dantzan" (1-2, 1957, 114-115/118-122), "Egiaren: Oraingo Aste Santua", "Zugastiren: Argi- Bide txikia", "P.P.C.-n: Aita Santua ikusi nahi?" (3-4, 1957, 227-228/ 237-240-241), "Irigariren: Euskalerriko ipuinak", "Onaindia A., Pi'ren: Goi-zale" (5-6, 1957, 363-364), "Baserria diru-bidean", "Goazen Lourdesera", "P.Arradoi: Kattalinen gogoetak", "Meza deuna herriarentzat", "Bat, sei, hamar...edo, zenbat seme?" (1-2, 1958, 104-109), "Historia de Oñate" (1-2, 1960, 107-110), "Onbidea", "Santa Teresa de Jesús" (4-6, 1963, 234).

2) ANJEL IRIGARAI IRIGARAI:

Beran (Nafarroa) jaio zen 1899 urtean. Medikuntza ikaske-

tak, eta 1926tik aurrera mediku gisa lan egiten. Pablo Fermin Irigarai "Larreko" idazlearen semea.

*Gure Herria, Revista Internacional de Estudios Vascos, Yakintza, Príncipe de Viana* eta *EGAN* bezalako aldizkarietan kolaboratzaile, euskaraz eta gaztelaniaz idatziz.

1951. urtean *EGAN* aldizkariaren zuzendaritzaren partaide, Mitxelena eta Arruerekin batera. Aldizkari honetan "Euskal Literaturaren historia laburra" eta "Literatur euskararen inguruan" (1959) idatzi zituen. 1957an Zarautzen bere "Euskalerriko ipuinak" argitaratu ziren. "Kijote Mantxako" liburuaren atal bat euskaratu zuen 1928an.

Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kide izan zen 1977an.

Nafarroako euskara jasaten ari zen atzerakadaz eta euskararen batasunaz arduratuta, ikerketa sakonak egin zituen. Raimundo Olabide atzerrian egon zen garaian ordezkoko euskaltzain izendatu zuten (1941-42), baina Olabide hil zenean euskaltzain oso (1942-83). Askotan "Apat-Etxebarne" goitizena erabiltzen du.

I - LITERATUR AZTERKETA:

*Ahozko literatura:* Bi obra ditugu soilik. "Luzaideko otoitz tipiak" (J.M. Satrustegi eta A. Iri-



garai elkarlanean) (1-6, 1964, 19-35), "Akelarren ipuina. Enciclopedia Ilustrada" (1-6, 1980/81, 169-170).

*Lirika zaharra*: 1977an idazten du atal honetan azaltzen den obra bakarra. "Orreaga" (1-6, 1977, 61-73).

*Autoreak* sailean, besteen artean, Axular aztertu zuen; bere biografian eta "Gero" obran sartuko da, aipatu gabe gelditu diren hutsuneak aztertuz. Axularrek zergaitik ez zuen nahi sorginkeriari buruz idatzi garai hartan, hain hedatua egonik, aztertu du Irigaraiek.

"Piarres de Axular" (1-4, 1953, 1-13) "Euskal literaturaren bilduma laburra" (1, 1956, 10-17), "Euskal literaturaren bilduma laburra. Leizarraga" (2, 1956, 12-13), "Euskal literaturaren bilduma laburra. Aita Estebe Materre" (3-4, 1957, 153-155), "Euskal literaturaren bilduma laburra. VII P. de Axular" (1-4, 1959, 25-30), "Mogel eta literatur euskara" (5-6, 1959, 130-138), "Mirande olerkariaren idatz lanak" (1-6, 1972, 90-93).

## II - SORKUNTZA:

*Testu-zaharrak*: Sail honetan bere jaioterriko hizkuntzari buruz idatzi zuena aipatzeko. "XVII. mendeko hiru eskutitz" (1-2, 1955, 10-12), "Euskal literaturaren bilduma laburra. Joanes Etxeberri" (1-2, 1958, 27-30), "Baztan-Bidasotarren dantzak XVIII. men-

dean" (1-3, 1970, 49-51), "1812 urteko euskal gutun bat" (1-6, 1976, 19-22).

*Garaiko testuak*: Obra bakarra idatzi zuen arlo honetan. "Muxika Gregororen eskutitz bat 'Bertso berriei' buruz" (1-6, 1982, 179-182).

*Poesia*: "Maitasunezko bertso zaharrak" (1-6, 1975, 101-108), "Bidasoa poza eta mina" (1-6, 1976, 165-170).

*Ipuin eta kontakizunak*: "Patxi errementaria" (1-2, 1958, 31-34).

*Narratiba*: "Negian girea?" (1-6, 1967, 83-84).

## III - HIZKUNTZA:

*Historia*: Aipatzekoak eta interesgarriak euskararen atsotitzei buruz egindako zenbait idazlan. Nafarroan euskararen egoera nola zegoen ere ikertu zuen. "Euskal literaturaren bilduma laburra IV: Atsotitzak eta errefrauak" (5-6, 1956, 76-78), "Atsotitzak" (1-2, 1958, 11-17), "Kaliforniako 1893. urteko asteari euskalduna" (1-6, 1972, 38-43), "Euskara itzali dan tokietako lekukoak" (1-6, 1980/81, 146-148).

*Azterketak*. Atal honetan, fonetika eta soziologia aztertuz, hiru lan. "Ikastolen kurso bat Iruñeko normalean" (1-6, 1973, 35-40), "Loiolan Euskaltzaindiaren biltzarrean egin itzaldia?" (1-6, 1964, 113-115), "Euskararen egoera Nafarroan lehen eta orain" (1-6, 1974, 27-32).

## IV - ADABAKIAK:

*Berriketan:* 1956ean idatzi zuen arlo honetako obra bakarra. "Berriketan. Xabier Bellok diosku" (1, 1956, 1-3).

*Nahas-mahas. Orotarikoak:* Sail honetan gai ugari jorratu zuen Irigaraik. Horien artean 1954ean Euskaltzaindiak bilera batean onarturiko arau ortografikoak komentatzen ditu, 1957an Nafarroako Diputazioak euskaren alde antolatu zituen haurrentzako serieak. 1961ean IKAS elkargoaren batzarrari buruz ere aritzen da, eta 1966ean "Bustintze" Kirikiño zenaren eta Larramendiren urteurrenen omenaldiei buruzko artikulu bana. "Nahas-mahas" (2-4, 1954, 28-31), "Nahas-mahas" (1-2, 1955, 43-46), "Nahas-mahas" (3-4, 1955, 35-40), "Nahas-mahas" (5-6, 1955, 39-46) "Nahas-mahas" (1, 1956, 43-46), "Nahas-mahas" (2, 1956, 68-72), "Nahas-mahas" (3-4, 1956, 80-83), "Nahas-mahas" (5-6, 1956, 137-138), "Nahas-mahas" (1-2, 1957, 94-98), "Nahas-mahas" (3-4, 1957, 206-209), "Nahas-mahas" (5-6, 1957, 350-355), "Nahas-mahas" (1-2, 1958, 86-89), "Nahas-mahas" (3-6, 1958, 222-226), "Nahas-mahas" (1-4, 1959, 60-66), "Nahas-mahas" (5-6, 1959, 179-185), "Nahas-mahas" (1-2, 1960, 84-89), "Nahas-mahas" (3-6, 1960, 218-222), "Nahas-mahas" (1-3, 1961,

110-115), "Nahas-mahas. Orotarikoak" (1-3, 1961, 122-128), "Nahas-mahas" (4-6, 1961, 230-236), "Nahas-mahas. Orotarikoak" (4-6, 1961, 243-247), "Nahas-mahas" (1-3, 1962, 70-76), "Nahas-mahas" (4-6, 1962, 292-297), "Nahas-mahas" (1-3, 1963, 116-122), "Nahas-mahas" (4-6, 1963, 220-226), "Nahas-mahas" (1-6, 1964, 144-148), "Nahas-mahas" (1-6, 1965, 96-104), "Nahas-mahas" (1-6, 1966, 118-122), "Nahas-mahas" (1-6, 1967, 88-93), "Nahas-mahas" (1-6, 1968, 135-141), "Nahas-mahas" (1-6, 1977, 167-175), "Nahas-mahas" (1-6, 1977, 193-200), "Juan de Huarte, haugi etxerat", "Garaziko laborariak", "Oraino Garazin", "Gaindi", "Huarte ikastegietan, Huarte, Aita familiako eta mediku", "Asisko pobrea eta Huarte", "Huarte eta inkisizioa", "Huarteren alaba Ageda", "Hiru hitz", "Juan Huarte bere adiskideekin", "Testamenduaren ozena", "Juduen gainean zenbait hitz", "Huartek nola ikusten duen ikaslea", "Teologoak", "Huartek Jondoni Pauloz bi hitz", "Medikuez zer dion Huartek erregeaz", "Gudariantzat", "Huarte berriz heldu balitz", "Huarte atzo bezala egun ere" (1-6, 1978/79, 167-268), "Arabako arkeologia. Euskal elkarte berria" (1-6, 1978/79, 299-300), "Medikuntzako tesis bat euskarak" (1-6, 1978-79, 307), "U.S.A. Reno Nevadatik, Gales eta Frisia

herrialdeetako mintzairak", "Interferon sendagailua-minbizia", "Euskal-idazle sendalariak", "Aranburu eta Bagoren liburua", "Jean Etxepare Baxenafartarra", "Palestindarren berri jakingarriak" (1-6, 1978/79, 300-310), "A. M. Labaien idazleari omenaldia" (1-6, 1980/81, 138), "Iparragirre gizatasunaren aldetik" (1-6, 1980/81, 149-152), "Bidasotar ministro ospetsua" (1-6, 1980/81, 163-164), "Leiren" (1-6, 1980/81, 273-286).

*Nekrologiak:* Zenbait pertsonaia esanguratsuren nekrologia: "A. Poli Zarrantz euskaltzaina hil" (1-6, 1978/79, 322), "Joakin de Irizar hil. Etxahun koblakaria zendu da. Charles edo Karl Bouda hil" (1-6, 1978/79, 326-327), "Salaberri-Soegile hil" (1-6, 1980/81, 138), "Labeguerie zenaren oroitzapena" (3-4, 1984, 139-140).

#### V - BIBLIOGRAFIA:

*Kritika eta erreseinak:* Atal hau gutxi landu zuen autore honek. "Onaindiaren euskal-literatura liburua" (1-6, 1973, 113-117), "J. Apecechea: Lizarraga del Elkanoren bibliografia eder bat" (1-6, 1977, 213), "Lizarraga Elkanoren liburu bat" (1-6, 1978/79, 308), "Joannes Ziburuko. Liburu berria: Sebero Altube zenaren bizitza", "Arantzadi Elkartearen aldizkaria", "El enigma de los berones", "Navarra ecológica y paisajística" (1-6, 1980/81, 178-187).

#### 3) ANTONIO ARRUE ZARAUZ (1903-1976)

1903-ko Martxoaren 26-ean Asteasun jaio zen. Batxilergo ikasketak Lekarozko eskola batean burutu zituen, eta ondoren Oviedoko Unibertsitatean abokatu-ikasketak. "Urrea" goitzenaz ere sinatuko ditu bere lanak.

Gipuzkoako "Comunión Tradicionalista"-ko buruzagia izan zen, eta Madrilgo Batzarre Nazionaleko kidea ere.

Euskaltzaindiako partaidea izateaz gain, "Julio Urkijo" euskal filologiako mintegiko kide eta EGAN aldizkarian, A. Irigarai eta K. Mitxelenarekin batera, zuzendari. 1932-an "La Constancia" egunkarian euskaraz idazten hasiko da. Geroago "Herria", "Euzko Gogoa", "Euskera", "Egan", "Zeruko Argia" eta "El Fuerista"-n sarritan idatziko ditu bere artikulu eta lanak. Hizlari aipagarria. 1962an argitaratu ez ziren euskarazko zenbait lan idatzi zuen. 1965ean "San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas". Beranduago, eta gaztelaniaz, "Cuatro poetas vascos actuales". Arruek literatur epaimahai askotan parte hartu zuen.

#### I - LITERATUR AZTERKETA:

*Autoreak* sailean bi lan besterik ez: "Juan Bautista Agirre" (1, 1954, 1-7), "Gerriko" (3-4, 1956, 5-9).

## II - ADABAKIAK:

*Gastronomia:* Atal hau izan zen Arruek gehien jorratu zuena; 40 lan, gutxi gora behera. Gai zabala, bertan gai hauek landu zituela beste batzuen artean:

- \* Euskal Herrian gastronomiari buruz idatzi diren liburuak.
- \* J. Antonio de la Vegak idatzitako "La Guía Gastronómica de España".
- \* Alemanek alkoholik gabeko ardo bat sortu dute.
- \* Lengoraduaeren errezetari buruzko hainbat aipamen.
- \* Zenbait errezeta.
- \* Gipuzkoako Moko-Finen elkarteari buruzko artikulua.
- \* Gastronomi txapelketen berri.
- \* Koktelari buruzko zenbait istorio.

"Jan-edanak" (2-4, 1954, 25-27), "Jan-edanak" (1-2, 1955, 38-42), "Jan-edanak" (3-4, 1955, 41-47), "Jan-edanak" (5-6, 1955, 47-48), "Jan-edanak" (1, 1956, 47-49), "Jan-edanak" (2, 1956, 73-74), "Jan-edanak" (3-4, 1956, 84-86), "Jan-edanak" (3-4, 1956, 86-87), "Jan-edanak" (5-6, 1956, 133-136), "Jan-edanak" (1-2, 1957, 102-104), "Jan-edanak" (3-4, 1957, 210-212), "Jan-edanak" (5-6, 1957, 348-349), "Jan-edanak" (1-2, 1958, 79-82), "Jan-edanak" (3-6, 1958, 219-222),

"Jan-edanak" (1-4, 1959, 55-58), "Jan-edanak" (5-6, 1959, 175-178), "Jan-edanak" (1-2, 1960, 76-83), "Jan-edanak" (3-6, 1960, 213-217), "Jan-edanak" (1-3, 1961, 116-121), "Jan-edanak" (4-6, 1961, 236-239), "Jan-edanak" (1-3, 1962, 65-69), "Jan-edanak" (4-6, 1962, 289-291), "Jan-edanak" (1-3, 1963, 113-115), "Jan-edanak" (4-6, 1963, 216-219), "Jan-edanak" (1-6, 1964, 149-152), "Jan-edanak" (1-6, 1965, 105-108), "Jan-edanak" (1-6, 1966, 123-127), "Jan-edanak" (1-6, 1967, 94-96), "Jan-edanak" (1-6, 1968, 142-144), "Jan-edanak" (1-3, 1969, 77-81), "Jan-edanak" (4-6, 1969, 90-98), "Jan-edanak" (1-3, 1970, 92-97), "Jan-edanak" (4-6/1-6, 1970/71, 72-76), "Jan-edanak" (1-6, 1972, 95-102), "Jan-edanak" (1-6, 1973, 60-63), "Jan-edanak" (1-6, 1974, 68-71), "Jan-edanak" (1-6, 1975, 33-38).

*Nekrologiak:* Nekrologi bakar bat J. M. Sagarnaren omenez. "J.M.Sagarna (G.B.)" (4-6, 1961, 213-216).

*Pintura, musika eta artea:* "Musikaz" (1-4, 1959, 81-83).

## III - SORKUNTZA:

*Poesia:* Atal honetako obra bakarra, P. Etxeberria eta Zugastirekin batera. "Olekiak: Lizarra, San Jose-lorea, Gazi-gezak" (2, 1956, 18-22).

*Ipuin eta Kontakizunak:* hiru

ipuin atal honetan. "Txantxangorria"(3-4, 1955, 8-13), "Ai, au gabaren zoragarria. Nere ama zerenaren oroimenez" (5-6, 1956, 60-62), "Turoczi" (3-6, 1958, 156-161).

#### IV - BIBLIOGRAFIA:

*Kritika eta Erreseinak*: Kritika eta erreseina gutxi. Hauen artean Martín Descalzo eta Díaz Plajarenak. Martín Descalzoren: "La Frontera de Dios", Díaz Plajaren: "El estilo de San Ignacio y otras páginas" (3-4, 1957, 234-237-240), "Hamasei seme Euskalerriko. Prosistas Navarros contemporáneos en lengua" (3-6, 1958, 238-239), "Zeru- menditik" (1-4, 1959, 94-96).

*Zinema*: "Hanno robato un tram (Trenbe bat ostu dute)" (3-4, 1956,97).

#### 4) KOLDO (LUIS) MITXELENA

ELISSALT (1915-1987):

1915. urtean Errenderian jaioa. Filosofia eta Letrak lizentziatura ikasi ondoren, Madrilgo Unibertsitatean Filologia Klasikoa arloan doktoregoa, eta Salamanca-koan Filologia Indoeroparrean katedratikoa. E.H.U.-an errektore-ordea.

Izengoitizat "Adiskideberri" erabili ohi zuen. 1952. urteik euskaltzain oso da, "Julio Urkijo" Euskal Filologia Mintegiko zuzendari eta zenbait erakunde internazionaleren partaide ere. Bar-

tzelona eta Tolouseko Unibertsitateek "Doctor honoris causa" izendatu zuten.

Aldizkari ugarietan kolaboratzaile, Gerrate zibilean eta gerrateostean, kartzelan zegoen bitartean, idazten hasten da "Espectean" aldizkarian. EGANen asko idazteaz gain, bere zuzendari eta zuzpertztaile nagusienetakoa dugu. Honetaz aparte, "Fontes Linguae Vasconum"-en zuzendari eta "Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País"en kolaboratzaile nagusi.

Bere obretan, gaztelaniaz idatzirik daudenen artean, nagusi ikerketa filologikoak ("Apellidos Vascos" 1955, "Lenguas y protolenguas" 1963, "Textos arcaicos vascos", "Sobre el pasado de la lengua vasca" 1964,...besteen artean).

Euskaraz idatziriko gehiena kritika literariora zuzendua dago ("Idazlan hautatuak" 1972. Obra honetan oso maila altuko prosa eskaintzen zaigu).

Mitxelenarekin euskara hizkuntza modernoa izaten hasten da, edozein beharretara moldatzeko gauza bihurtuz. 1968. urtean Euskaltzaindiak euskara batua eraikitzearen erronka hasi zuenean, Mitxelena lan horretan garrantzi handikoa izan zen.

#### I - LITERATUR AZTERKETA:

Ahozko literatura, Kritiken azterketak, Literatura orokorra eta

Autoreak urriago landu zituen. Emaitzatzat bederatzi idazlan dauzkagularik, 1951-1987 artean idatziak.

*Ahozko literatura:* "Euskal kanta Zaharrak" (1-6, 1966, 134-135).

*Kritiken azterketak:* "Bigarren-go adabakiak" (3-4, 1984, 197-203).

*Literatura orokorra:* "Euskal Literaturaren etorkizuna" (3, 1951, 17-21), "Asaba zaharren baratza" (3-6, 1960, 121-134), "Euskal literatura eta... adarrak" (1-3, 1961, 123-125).

*Autoreak:* "Paul Claudel" (1-2, 1955, 62), "Pio Baroja" (5-6, 1956, 173-178), "Luisa Miserikordiakoa, Larramendi eta Peñafloreda" (1-3, 1961, 126-128), "Koldo Mitxelena jaunaren hitzak Ossian saria jasotzean" (3-6, 1987, 21-24).

## II - SORKUNTZA:

*Testu-zaharrak, Ipuin eta Kontakizunak* ataletan lan gutxi idatzi zituen. Ipuin bakar bat zuen Peillenekin idatzia.

*Testu-zaharrak:* "Sarako Joanes Etxeberriren 'Euskal-Herriko gazteari'" (1-6, 1965, 109-123).

*Ipuin eta Kontakizunak:* "Juseff Egiateguy, Larramendiren Zuberotar jarraitzaile bat", Peillenek eta Mitxelenak idatzia (1-3, 1963, 75-81).

## III - HIZKUNTZA:

*Historia:* "Eranskin gisa" (1-3, 1963, 78-81).

*Azterketak* atalaren barruan *Dialektologia*. "Bizkaitarren erdal-ezena" (1-6, 1965, 139-140), "Euskera eta Iberikoa" (1-6, 1965, 141).

## IV - ADABAKIAK:

Berriketan eta Nahas-Mahas ataletan bakoitzean hamar bat lan; beraz, epe horretan sail honi eskainitako lana, besteekin konparatuz, ez zen hain urria izan.

*Berriketan:* "Berriketan: Escudero maisuak esan digu" (1-2, 1955, 1-4), "Berriketan: Pio Barojak esan digu" (3-4, 1955, 1-4), "Berriketan: Estellako Aita Hilario Olazaraneke esan digu" (5-6, 1955, 1-5), "Berriketan; Migel Angel Alvarezek esan digu" (2, 1956, 1-4), "Berriketan: Migel Castellek esan digu" (3-4, 1956, 1-5), "Berriketan: Santiago Carrerok esan digu" (5-6, 1956, 1-5), "Berriketan: Etxekoekin hizketan" (1-2, 1957, 3-8), "Berriketan: Aita Plazido Mujikak esan digu" (3-4, 1957, 127-133), "Berriketan: Izkuntzak Galesen" (5-6, 1957, 267-271), "Elgarresta jaunak esan digu" (3-6, 1958, 139-141), "Arnald Steiger irakasleak esan digu" (1-4, 1959, 3-5) "Jurgi Oteizak esan digu" (5-6, 1959, 115-120), "Iruñetik" (1-2, 1960, 3-7).

*Nahas-Mahas. Orotarikoak:* "Asmo Berri" (A. Arrue, A. Irigarai

eta Mitxelena elkarlanean) (2-4, 1954, 1-2), "Orixe gure artean" (2-4, 1954, 3-4), "Euskaltzaindiak eraturako sariketa" (1-2, 1955, 60-61), "Adabakiak" (5-6, 1956, 139-141), "Oar gisa" (5-6, 1959, 189), "Adabakiak. Ikasle" (1-3, 1962, 77-79), "Adabakiak. Narbaxa" (1-3, 1962, 79-80), "Adabakiak. Txantxiku" (1-3, 1962, 80-81), "Adabakiak. Betikoa" (4-6, 1962, 289-299), "Adabakiak. Aspaldiko" (4-6, 1962, 299-301), "Adabakiak. Etxaitar" (4-6, 1962, 302), "Aita Villasante'ri gutun-gisa" (1-3, 1963, 123-124), "Pro domo" (1-3, 1970, 11-26), "Barandiaran jauna eta gure kultura" (1-6, 1980/81, 123-128).

*Nekrologiak*: Nekrologi arloan Luis Martín Santos, Orixe eta Ibiñagabeitiaren oroigarriak idatzi zituen. "Orixeren heriotzean" (4-6, 1961, 157-163), "Luis Martín Santos" (4-6, 1963, 245-246), "Ibiñagabeitia, Andima" (1-6, 1967, 108-109).

#### V - BIBLIOGRAFIA:

*Kritika eta Erreseinak*: 1954-1967 tartean Mitxelenak idazle ugariren obren azterketa, zinemarekin gehien eta sakonkien landuriko arloa izaki. "Erraldoi berekoia" Oskar Wilde, Elizalde izulia. (2-4, 1954, 11-15), "Axular: Gero", "Juan Ramón Jiménez - Ametzaga, B.: Platero eta biok", "Domingo Agirre: Kresala" (2-4, 1954, 39-42), "Juan Gorostiaga: La poesía popular en el País

Vasco", "A. Emiliano, karmeldarra: Andre Mari gaztediaren eskuetan", "Juan Baxurko: Jesus", "Joxe Zapirain: Nere bizitzako bertso batzuk" (1-2, 1955, 54-57), "Camilo José Cela: Historias de Venezuela. La Cátira" (3-4, 1955, 64-66), "Jon Etxaide: Joanak-joan", "José de Artetxe: Vida de Jesús", "José Antonio Loidi Bizkarrondo: Amabost egun urgainen" (5-6, 1955, 69-74), "Liburuak. Juan Basurto: Inazio Deuna", "Karmengo Amaren egutegia" (5-6, 1955, 74-75), "Lizardi, X.: Bihotz-begietan" (2, 1956, 84-86), "Guraso zintzoa" A. Chejov, Elizalde izulia (3-4, 1956, 29-32), "Barandiaran, S.: Ilias'ena (Iliada euskaraz)" (3-4, 1956, 102-105), "Mogel, J.A.: Peru Abarka" (3-4, 1956, 105-107), "Ormaetxea, N.: Agustin Gurenaren Aitorkizunak" (5-6, 1956, 142-144), "Agirre, D.: Garoa" (5-6, 1956, 145-147), "Euzko-Gogoa eta Euskera" (5-6, 1956, 157-163), "Wast, H.: Bide izkutu" (1-2, 1957, 116-117), "Arrese, F.: Olerkiak" (1-2, 1957, 117-118), "Alvarez Enparantza, J. L. (Txillardegia): Leturia'ren egunkari izkutu" (3-4, 1957, 225-226), "Etxaide, Y.: Fernando Plaentxiatarra" (3-4, 1957, 226-227), "Altube, G.: El día cuatro de agosto de 1947 moría Manolete en la plaza de Vitoria" (3-4, 1957, 231-232), "Lardizabal, F. I.: Testamendu berriko kondaira edo historia" (3-4, 1957, 232-233), "Eliz-

- kanta sortatxoa" (3-4, 1957, 238), "Yankin. Arantzazu" (3-4, 1957, 241), "Berasaluze: Pipo konejuxu arroa. Nini, konejuxu argia" (5-6, 1957, 364), "Herrero Tornadijo, R.: Estudio Elemental de la gramática vasca" (5-6, 1957, 365), "Erkiaga, E.: Arranegi", "Sagarzazu, C.: Intza begietan", "Campion, A. - Mokoroa, J. M.: Erraondoko azken danbolinteroa" (1-2, 1958, 102-106), "Tournier, A.; Lafitte, P.: Lexique français-basque" (1-2, 1958, 110), "Anabitarte, A.: Poli, mutil umezurtz baten ibilaldia", "Jauregi, L.: Xenpelar bertsolaria: bizitza eta bertsoak", "Aprenda el Vasco" (3-6, 1958, 239-241/243-244), "Olabide: Itun Zar eta Berria", "Kerexeta, J.: Orbelak. Ipiña ta Ipiñatarren berri", "Lafitte, P.: Autor de la bible traduite en basque par le Père R. Olabide" (1-4, 1959, 85-101), "Ormaechea, N.: A. Olabide'ren itun zar eta berria" (5-6, 1959, 186), "Baroja, Pío-Etxaide, J.: Itsasoan laño dago. Xanti Andia itsas-gizonaren bizitza ta kezka", "Ormaetxebarria, I.: Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco", "P.P.C. Euskaltzaindia: Euskal-kantak", "Ikas. Bulletin trimestriel" (5-6, 1959, 192-197), "Alvarez-Enparantza, J.L. 'Txillar-degi': Peru Leartzako", "Kerexeta, J.: Bitargi", "Peña, J.: Euskal-irakasbide laburra", "Eizmendi, I.: Kantari nator", "Euskaltzaindia: Euskal-kantak", "San Martin, J.: Juan Antonio Mogel eta Urkitza, bere bizitza ta lanak. Zirikadak", "Manzisor: Santu bizitzak, egunean egunekoa", "Otaño, P.M.: Pedro Maria Otañoren bertsoak" (1-2, 1960, 101-118), "Schmid, K. - Arrue: Bravanteko G novevaren bizitza", "Muñoyerro: Lartaun eguzki-semea", "Estonba, J.M.: Izartxo", "Intxausti, J.: Euskal-aditza. Gipuzkoa. Bizkaierak. Paradigmas verbales y método nacional para su estudio", "Kerexeta, J.: Jesu-kristo gure Jaunaren barri ona. Lau ebanjeliotatik hitzez- hitz atera ta laurak alkartuta", "Estornes Lasa, J.: Cómo aprender el vasco fácilmente. Euskal aldizkariak" (3-6, 1960, 230-237), "Euskalerriko Bertsolarien Txapelketa 1961", "Artola, R.: Sagardoaren graziya ta beste bertso asko", "Soroa Lasa, M.: Gabon. Au ostatuba!!", "Apalategi, F.: Euskal mutilak armetan", "Ciriquiain Gaiztarro, M.: Los vascos en la pesca de la ballena", "Loramendi: Olerki ta idatzi guziak", "Aita Basilio Pasiotarra: Elurra ta sua. Santa Gema-ren bizitza", "Kerexeta, J.: Apostoluen egiñak", "Villasante, L.: Nere izena zan Plorentxi", "Ibiñagabeitia, A.: Aprenda el vasco en 60 horas" (1-3, 1961, 141-152), "Villasante, L.: Historia de la literatura vasca" (4-6, 1961, 253-255), "Artola, P.: Ustez laguna detan ta beste bertso asko" (4-6, 1961, 256-257), "Urruzuno, P.M.: Euskalerritik zerura ta bes-



- te ipui batzuk" (4-6, 1961, 257), "Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera: Cantabria franciscana" (4-6, 1961, 257-258), "Lasalle, L.: Gure Erlisionearen frogantza" (4-6, 1961, 258-259), "Anduaga, G.: Aitonaren uzta" (4-6, 1961, 259-260), "Cursos Polyglophone CCC: Curso LV. 'Vascuence'" (4-6, 1961, 260-261), "Zaitegi, J.: Platon'eneko atarian" (1-3, 1962, 85-86), "Erkiaga, E.: Arai-bar zalduna" (1-3, 1962, 87), "Gandiaga, B.: Elorri" (1-3, 1962, 88-89), "Alzaga, T.: Ramuntxo" (1-3, 1962, 89), "Apaolaza, A.: Patxiko Txerren" (1-3, 1962, 90), "Azkarate, R.: Galtzaundi ta beste bertso asko" (1-3, 1962, 90), "Bertsolariak: Errege eguneko bertso-sayoa" (1-3, 1962, 90), "Iraola, B.: Oroitzak eta beste ipui asko" (1-3, 1962, 90), "Larzabal, P.: Bordatxuri" (1-3, 1962, 91), "Bizkarrondo, I. (Bilintx): Bertso ta lan guziak" (1-3, 1962, 91-92), "Izeta, M.: Dirua galgarri" (1-3, 1962, 92), "Mujika, G.: Los titanes de la cultura vasca" (1-3, 1962, 92-93), "Michel, F.: Poésias populares de los vascos" (1-3, 1962, 93), "Azkue, D.: Mi pueblo ayer (Croquis donostiarra)" (1-3, 1962, 94), "Villasante, L.: Kristau Fedearen sustraiak, I. Jainkoa" (1-3, 1962, 94-95), "Erkiaga, E.: Batetik bestera galdugordeko ibillerak" (4-6, 1962, 303-304), "Oskillaso: Kurloiak" (4-6, 1962, 304-305), "Auspoa Li-  
burutegia" (4-6, 1962, 305-306), "Larzabal, P.: Iru ziren; Herriko bozak edo nor alkate" (4-6, 1962, 306-307), "Ezkontza galdutak bertsoak I" (4-6, 1962, 307), "Zabala, A.M.: Gabon gau bat eta beste ipuin asko" (4-6, 1962, 308), "Labaien, A.M.: Malentxo alargun!" (4-6, 1962, 308-309), "Zavala, A.: Txirrita" (4-6, 1962, 309-310), "Goñi, F.: Lurdes-ko gertaerak" (4-6, 1962, 310), "Lau ebanjelioak. Arantzazu-ko praillek egiña" (4-6, 1962, 310-311), "Goi-argi Ars"ko erretore santuaren erakusaldiak" (4-6, 1962, 311-312), "Anabitarte, A.: Aprika-ko basamortuan" (4-6, 1962, 312-313), "Lafitte, P.: Grammaire Basque" (4-6, 1962, 313-314), "López Mendizabal, I.: Manual de conversación castellano-euskera" (4-6, 1962, 314), "Tserri buztan'go erreka errotaria" (1-3, 1963, 124-126), "Gaztelu: Musika ixilla" (1-3, 1963, 141-143), "Zaitegi, I.: Berriz ere goldaketan" (1-3, 1963, 144), "Auspoa: Aizkolariak ta beste ipui asko" (1-3, 1963, 146), "Imaz, F.: Bertso guziak" (1-3, 1963, 146-147), "Iturriaga, A.P.: Jolasak" (1-3, 1963, 148-149), "Hemingway, E.: Agurea eta itsasoa" Euskeratzalea: Angel Goenaga. (1-3, 1963, 149), "Tauer, N.: Bere idazkiak" (1-3, 1963, 149-151), "Etcheberry, J.B.: Michel Garicoitz Sainduaren bizia eta bertuteak" (Pierre Lafitte kalonjearen aintzin-solasarekin) (1-3, 1963, 151-152),

"Oteiza, J.: Quosque tandem...", (1-3, 1963, 152-153), "Zabala, A.M.: Larraitz, A.: Mir, J.: Periyaren zalapartak" (4-6, 1963, 235-236), "Zavala, A.: Azpeitiko premiyoaren bertsoak (1893-1895)" (4-6, 1963, 236), "Mogel, B.A.: Ipui Onak" (4-6, 1963, 237), "Alzaga, T.: Burruntziya" (4-6, 1963, 237-238), "Anduaga, G.: Egunsentiko txoria ta beste bertso asko" (4-6, 1963, 238), "Soroa, M.: Baratzan" (4-6, 1963, 239), "Amazaga, V.: Hombres de la Compañía Guipuzcoana" (4-6, 1963, 242-243), "Kerexeta, J.: Onaindia Eguneroko meza" (4-6, 1963, 244-245), "Grabieli Aresti'ri" (1-6, 1964, 157-160), "Elicegui, M.: Zavala, A.: Pello Errotaren bizitza, bere alabak kontatua" (1-6, 1964, 166-167), "Larzabal, P.: Senpere'n gertatua" (1-6, 1964, 167-168), "Echegaray, J.V.: Festa-  
ra" (1-6, 1964, 169-170), "Cardaberaz, A.: Euskeraren berri onak" (1-6, 1964, 172-173), "Salaverria, S.: Neronek tirako nizkin" (1-6, 1964, 173), "Arozamena, J.M.: Donostia capital de San Sebastián", "Bertsolariak: Amar urteko bertso-papelak (1954-1963)" (1-6, 1964, 175), "Axular, P.: Gero" (1-6, 1964, 176), "Aita Gasteluzar'ek itz neurtuz egin zituen zenbait itzulpen" (1-6, 1965, 40-44), "Jondone Mikeleren izena" (1-6, 1965, 137), "Etxaide, Y.: Gorrotoa lege" (1-6, 1965, 159-161), "Mujika, L.M.: Bide-giroak" (1-6, 1965, 165-167), "Estornes La-

sa, B.: Fantasía y realidad. Antología literaria vasca" (1-6, 1965, 170-171), "Peña Santiago, L.P.: La 'argizaiola' vasca. Creencias, ritos y costumbres relacionados con la misma" (1-6, 1965, 173), "Fagoaga, I.: Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos" (1-6, 1965, 173-174), "Urquijo, J.: Refranero vasco. Los Refranes y sentencias de 1596" (1-6, 1965, 174-175), "Labayen, A.M.: Teatro éuskaro" (1-6, 1965, 175-176), "Lecuona, M.: Literatura oral vasca" (1-6, 1965, 176), "Azkue zena eta frantsesa" (1-6, 1967, 97-99), "1664-ko meditazioea 'Versuetan eguina'" (1-6, 1967, 99-100), "1793-an San Simoneko Markesak euskeraz egin zuen deia" (1-6, 1967, 100-101), "Jondane Gneli Arcangelia" (1-6, 1967, 104-105), "Alzola, N. (Bitaño): Atalak" (1-6, 1967, 116-117), "Altuna, P.: Euskera, ire laguna!" (1-6, 1967, 131-132).

*Zinema:* Alor hau gehien landu duen autorea Mitxelena. Hainbat eta hainbat filme famatuak erreseina egin zuen, eta, beste artean, "Crimen perfecto", "Romeo y Julieta", "La vuelta al mundo en 80 días", "Duelo de titanes". 1954tik 1961era 50 bat kritika eman zituen argitara.

"On the waterfront (La ley del silencio)", "Julius Caesar (Julio César)" (2-4, 1954, 35-38), "Perfect crime (Crimen perfecto)", "The robe (La túnica sagrada)",

"Rashomon", "Escape from Fort Bravo (Fort Bravo)", "Cancha vasca", "Cangaceiro" (1-2, 1955, 47-52), "Limelight (Candilejas)", "Nous sommes des assassins" (3-4, 1955, 54-55), "Betrayed (Brumas de traición)", "Sign of the pagan (Atila, rey de los hunos)", "Veracruz", "Infernuko atea", "Rear Window (La ventana indiscreta)", "Muerte de un ciclista", "Ulisse (Ulises)" (5-6, 1955, 58-62), "Not as a stranger( No serás un extraño)", "Agente especial, Marty" (1, 1956, 50-52), "Robinson Crusoe", "Romeo and Juliet" (2, 1956, 79-81), "The most beautiful woman in the world", "Altri tempi", "Hombres olvidados", "City light" (3-4, 1956, 94-97), "Picnic: An American Tragedy", "A streetcar named Desire (Un tranvía llamado Deseo)", "Napoleón, Más dura será la caída" (5-6, 1956, 179-182), "Trapeze", "Calle Mayor", "Le ballon rouge", "El ferroviario" (1-2, 1957, 112-113), "La strada", "Les diaboliques", "Animal farm" (3-4, 1957, 217-219), "La batalla del Río de la Plata", "Si Versailles

n'était conté" (5-6, 1957, 361-362), "El hombre de las llaves de oro", "Arround de world in 80 days (La vuelta al mundo en 80 días)", "Las noches de Cabiria" (1-2, 1958, 97-100), "Un rey en Nueva York", "Du rififi chez les hommes", "Moby Dick", "To catch a thief (Atrapa a un ladrón)", "El puente sobre el río Kwai" (3-6, 1958, 234-236), "The prodigal (El hijo pródigo)", "East of Eden (Al este del Edén)", "The witness for the prosecution (Testigo de cargo)", "To Yuma (El tren de las 3'10)", "Gun fight at the O.K. Corral (Duelo de titanes)", "My darling Clementine (Pasión de los fuertes)", "Man of a thousand faces (El hombre de las mil caras)", "The man who never was (El hombre que nunca existió)", "The one that got away (El único evadido)", "Across the bridge (Al otro lado del puente)", "Mon oncle (Mi tío)" (1-4, 1959, 75-77), "On the beach (La hora final)", "Il Generalle della Rovere" (1-2, 1960, 97-100), "El séptimo sello" (1-3, 1961, 129-131).

Anabel Gómez  
Maite Manzano  
Nerea Mujika